

# Z E R E A E L G O I

elgoi



Santa Ana kalea

**Argazkiak ORDUBETEAN izango dituzu eta  
ALBUM BAT eta 24ko KARRETE BAT erregalatuko dizugu  
Opf q r e u e l j c w g t k e m 1995!**



BADATOR

100. zenbakia

eta

ospatzeko

SEKULAKOA

prestatzen ari gara.

*Adi egon!*

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Alberto Agirreazaldegia.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSELUA:**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**

Maiete Rementeria,  
Edu Sanz.

**PUBLIZTATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Maiete Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Julian Mujika, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**


Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.300 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Langabeziaren arrazoiak

**K**risialdi ekonomikoak, hainbat enpresatan gertatzen ari diren etengabeko porrotetan gauzatzen dela, industriaren suntsipen geraezina sortarazi du arian-arian. Egoera horren ondorioa dugu lanpostuen eskasia, zuzenean hiru milioitik gorako langileengan eragina duena, eta zeharka ia herritar guztien-gan.

Jakina denez, langabezia-tasa handi horien zioak azaltzerakoan, ekonomi arlorat jotzen da orohar. Beraz, honako hau esan ohi da: nazioarteko krisialdi ekonomikoari gure ekonomi egituren ahultasuna gehituz gero, eta horrekin batera, lan-faktorearen benetako kostuek izandako gorakada nabarmena eta kredituaren kostu erlatiboak kontuan hartuta -bigarrenak inflazioari konponbidea ematearren gobernuak garaturiko moneta politikaren ondorio direla-, esku artean izango ditugu, alde batetik, inguruko herrialdeetan ere bizi duten langabeziaren arrazoiak eta bestetik, gure tasa diferentziala Europako batzbestekoaren bikoitza izatearen zergatiak.

Aldagai ekonomikoan jarraian, teknologiarri eta demografiari dagozkienak izan ohi dira aipatuena. Argi dago industria eta zerbitzuen arlo guztietan teknologia berriak ezarriaz ekoizpen zuzenekoak diren lanpostu gehiago galtzen direla sortzen direnak baino. Horrez gain, hirurogeigarren hamarkadan, jaiotze-tasa handiek eta teknologia-aren arrazionalizazio prozesuaren hastapenak bat egin zuten, eta horren ondorioz eskulanaren eskaintzak gora egin du azken urteotan, merkatuak ezin duelarik eskulan

guztia bereganatu.


Azken aldian, aldagai juridikoak aipatzen dira maiz langabezia altu honen iturburutzat eta, hiruen arabera, lan eskaintza eta eskariaren arteko desorekak erakunde eta legebideen zurruntasunean du oinarri. Izan ere, zurruntasun horrek lan-merkatua doitzea eragotzi eta gure enpresen produktibitatea eta konpetitibitatea handitzea galarazten du.

Azkenik, beste batzuek aldagai soziologiko edo politikoez mintzo dira aztergai honen inguruan. Ildo horretan iritzi batzuen arabera, emakumeek gizartearen onarpena lortzeko ordaindutako lanari ekin diotela eta, iharduera-tasak gora egin du eta merkatuan ez dira sortu guzti horiek xurgatzeko adina lanpostu. Beste batzuen iritziak, aldiz, Espainiako transizio politikoak egonezina eta kezka nagusitu ziren gizarte osoan, eta are gehiago Euskal Herrian biolentziaren eraginez; gauzak horrela, ezinezkoa izan zen politika ekonomiko eta industrial egokia burutzea.

Ezbairik gabe, adierazitako aldagai guztiek izan dute eraginik langabeziaren gorakadan eta iraunkortasunean, baina gure ustez, gai honen sustraia axiologiaren arloan datza. Zenbait balio jakin, hala nola gizartearen elkartasunik eza, hedatzen ari diren heinean, ezinezkoa da gizarte-hitzarmen berria lortzea, ekoizpenarentzako soldadak ezezik lanaren banaketa ere ezarriko duena, horrela, lan gutxiago eginez guztiok lan egin dezagun.

**Antonio Matias Ortiz de Zarate**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

### Zenbaiteraino da fidagarria Udalak egin berri duen esukararen kale erabileraren azterketa?

Euskara Teknikariak honako arrazoi hauek eman ditu besteak ebste:

- Euskal Herrian gehien erabiltzen den neurketa sistema erabili da (SIADECOren metodologia).
- Elgoibartarren %78,5a neurtu da.
- Betse erakunde batzuk (EKB) egindako neurketa datuekin bat dator.
- Urtez-urte egiten denez, urteroko datuen irakurketak eta konparaketak sistema fidagarria dela erakusten digute.



## KEXAK

Bederatzi eta hamar urteko neska talde bat kexu da larunbat goizean taberna batean ura eskatu eta tabernariak ez zielako urik atera. Ez zirela kapritxoak joan esan digute, arrazoa zera da: herriko iturri batzuk apurtuta daude eta zenbait kasutan txakurrek iturrietatik edaten dute. Hori dela eta, iturriak gehiago zaintzeko eskatzen dute.



## TXALOAK

Irakurle batek deitu digu Herriko Institutuak Elgoibarko enpresetan euskara erabiltzeko prestatu duen ikastaroa txalotzeko. Halaber, enpresetan lanean dabilen langilegoa animatu nahi du aipatu ikastaroan izena ematera.

# ESKUTITZAK

## Euskararen ordenantzak

**U**rtarrilaren 27an izandako Udalbatzan, Elgoibarko Udalak euskararen udal ordenantzak onartu zituen. Hiru urte t´erdi pasa behar izan dira, eta ez nolana hikoak, denetarik ikusi behar izan baitugu: PSOEk bi aldiz jarri dizkio osotasunezko emendakinak txostenari, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak (HPIN) bere iritzi legala eman behar izan du, behin behineko aprobazioa eta, azkenik, behin betikoa. Hainbat gauza azpimarratu nahi dugu prozesu honen inguruan:

- PNVk PSOEkiko adostasuna bilatu nahi izan du denbora guzti honetan, EAK eta Herri Batasunak jarritako emendakinei muzin egiten zien bitartean, ez baitu bat bera ere onartu.

- PNV eta PSOEn arteko kontraesanak herriak ordaindu behar izan ditu; halaxe da, PSOEk ez baitzion jaramonik egin Eusko Jaurlaritzaren zati bat den HPINek esandakoari.

- Herri Batasunak jarrera malgua azaldu du, gure printzipioak alboratu gabe; hiru emendakin aurkeztu dizkiogu oinarritzko txostenari. Bi EAekin batera:

1. Udaletzeko langile berriak, postuari dagokion euskara perfilarren jabeak izatea lanean hasten direnerako.

2. Euskara ikasteagatik dirulaguntza jasotzeko eskubidea ziurtatu edozein elgoibartarri, bere

langabetu egoera kontuan hartuko delarik.

3. Herri Batasunak beste emendakin bat ere aurkeztu du, euskararen helduen irakaskuntzan diharduen AEK erkaunde ekonomikoki laguntzeko.

PNVk bat bera ere onartu ez duenez, Herri Batasunak abstentziora jo behar izan du.

Udal Ordenantzek euskararen garapenerako marko legala zabaltzen dute, Udalari zein Udala eta herriaren arteko harremanei dagokiena; gaurtik aurrera ordenantzak praktikara eramatea falta zaigu (garrantzitsuen). Hori eguneroko lana izango da hemendik aurrera. Herri Batasuna hor egongo da, onartutakoa bete dadin.

### Elgoibarko Herri Batasuna

## Santa Ageda koruaren eskerrak


**L**erro hauen bidez elgoibartar guztiak eskertu nahi ditugu joan den otsailaren 4ean, Santa Ageda bezpera egunez, diruz lagundu zigutelako Santa Eskean ibili gineno. Era berean, koruetan parte hartu zuten guztiei mila esker, bai koplari ibili zirenei bai eta dirua biltzen aritu ziren guztiei ere.

Guztira 174.545 pta jaso ziren, diru hau herriko behartsuen artean banatuko delarik.

Bide batez, Udaletzeko Kultura Batzordeari gure eskerrak luzatu nahi dizkiegu omenaldirako lau plaka eskaini zizkigutelako. Hona hemen omenduak izan zirenen izen-abizenak: Felix Juaristi, Patxi Iriondo, Rafael Areitiourtena eta Jose Kruzelegi.

### Santa Ageda korua

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



**A**ste honetako argazkia **Ful Etxaniezek** lagatakoa da. Berak esan digunez 1951. urtean ateratakoa da eta konturatuko zinetenez Plaza Txikian atera zuten. Telebistan auto marka ezberdinen etengabeko anuntzio edo iragarki jariora "aguantatu" behar dugun sasoi honetan, aproposa izango da oraingoak une batez ahaztu eta duela ia berrogeita hamar urte Elgoibarko gaztetxoak denbora zertan ematen zuten ikustea. Ez dakigu erretratuko autoak zenbateko abiadura hartuko zuen baina begibistan dago gaztetxoak pozik zeudela.

Ful Etxanizen esanetan, Jose Oria izan zen autoaren egilea.

Autoaren ondoan daudenen izenak ezkerretik hasita:

**Ezezaguna, Jose Alberto Juaristi, Santi Oria, Bisturi, Jose Luis Oria, ezezaguna. Xabier Gorostiza, Roman Igartua, ezezaguna, ezezaguna.**



*larunbata 25*

## IHAUTERIETARAKO MENU BEREZIA

- Barazkitxoaren hojaldrea Oportoko saltsarekin
- Perretxiko eta langostino otarratxoak
- Lengoradu-erroiluak almendraz beteak
- Idi isatsa ardo beltzaren saltsarekin
- Etxeko pastelen aukera

**EDARIAK:** Ardo beltza "Crianza del 87"  
Ardo gorria "Castillo de Olite"


**3.100 pta.**  
BEZa barne.


**TOKIA HARTZEKO: TXARRIDUNA JATETXEA ☎ 74 04 90**

**Kf g**

**ILEAPAINDEGIA**

☎ 74 00 69  
San Frantzisko, 19 1 esk.



**PACO EGEA,** *Ekonomia Sailburuordea:***"Egoera ekonomikoa hobetzeak ez du esan nahi langabezia berehala jeitsiko denik"**

44 urte dituen elgoibartar hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailburu orde izendatu dute. Zaragozan jaio zen eta handik Donostiara joan injenieritza teknikoa ikastera. Gaez ikasi eta egunez Elgoibarko ZUBAL enpresan egiten zuen lan, "fotokopiak atera eta lankideei Coca-Colak erosten nizkien". Beranduago Caja Laboral-Euskadiko Kutxak Arrasaten daukan enpresa multzora joan zen lanera eta han, "ekonomia gaiekiko pozoia" sartu zioten. Injenierizatik at egin izan du lan, azken hiru urteotan Diputazioan. Gaur egun, independente bezala, Jaurlaritzako Ekonomia sailburu orde da.

- **Enpresa pribatutik Diputazioara pasa zinen.**

- Bai. Nire aurreko lanei esker jende asko ezagutzeko aukera izan nuen, horien artean Ramon Jaurregi. Garai hartan Gobernu berria osatzen ari ziren EAJ/PNV eta PSOE. Ni ez naiz ez alderdi bateko eta ez besteko militante, nire ideologia propioa dut, noski, baina ez dut inun militatzen. Baina, Diputazioako Ekonomia Zuzendari izateko postua eskaini zidaten, onartu eta hiru urte t'erdi eman ditut.

- **Esperientzia ona, beraz.**

- Oso aberasgarria izan da, asko ikasi dut eta gauza garrantzitsuak egin ditugula esan daiteke. Patronalarekin eta sindikatu guztiekin akordio garrantzitsuak sinatu ditugu eta sindikatuek Diputazioarekin harremanak izatea lortu dugu.

- **Zer behar du Gipuzkoak konpetitiboa izateko?**

- Administrazioa gehiago arriskatu behar da nere ustez, langileen hezkuntza, teknologia eta nazioartekotasuna bultzatu behar ditu, batez ere. Horiek dira nire ustez Gipuzkoa konpetitiboa izan dadin beharrezko hiru baldintzak. Nire ustez garrantzitsuena etengabeko hezkuntza prozesua da.

- **Garai onak al datoz**

**ekonomiari dagokionean?**

- Nik baietz esango nuke, ekonomia berpizten ari da eta gorakada honek 97-98 urtera arte iraungo duela aurrikusten da, kristalezko bola miragarrik ez daukagun arren. Baina analistek diotenaren arabera ekonomiaren gorakada hasi da.

- **Halere, langabeziak ez du beherantz egiten.**

- Ez, hala da. Ekonomiaren gorakadak ez du langabeziaren beherakada ekarri beharrik, halabeharrez. Oker daude ekonomia %3a igoz gero lanpostuak sortuko direla diotenak, lanpostu batzuk bai baina ez behar diren beste, gizarte orekatu bat lortzeko beste, gaztediak bere tokia izateko beste. Lanpostuak sortzeko beharrezkoa da ekonomia igotzea baina ez da ekuazio matematiko bat bezain gauza sinplea, ez da %3 igotzen da ekonomia=%2a igotzen dira lanpostuak. Horretarako beharrezkoa da jarrera aldatzea.

- **Adibidez.**

- Merkatu ireki batean gaude, erdi mailako teknologia daukagu, eskulana gero eta formatuagoa da, ez dago lehengairik eta herri txikia garenez ez dauka apenas eraginik erabaki makroekonomiko-

tan. Beraz, gizarte mailako akordio bat behar da, hitzarmen sozial bat.

**- Hitzarmen sozial bat?**

- Hitzarmen txikiz osatuko litzatekeen hitzarmen bat. Hezkuntza hitzarmen bat, errenta hitzarmen bat, akordio fiskal bat... Batetik zintzotasun prozesu bat egin behar da. Garen modukoak gara, teknologia maila konkretu bat daukagu... Testuinguru horretan, zein da hezkuntzaren tokia?, zein sistema finantzieroarena?, zer egin daiteke teknologiarekin?... Gauza horiek eztabaidatzea beharrezkoa da. Industriari jakin arazi behar zaio benetako pisua duena azpi produkzioa bultzatzen duen produkzioa dela. Kotxeen industriak, adibidez, beste industria auxiliar batzuren produkzioa eragiten du eta hori mantendu behar da. Eta ez hori bakarrik, ekonomia egoera osasun-tsuan dagoenean ere mimatu egin behar da, zaindu. Askotan, egoera pozgarrietan beste gauza guztiak ahaztu egiten baititugu.

**- Nola ikusten duzu Elgoibar?**

- Elgoibar Euskal Herria bezala dago. Egoera txarra da baina badakigu arazo estrukturaleri buruz hitzegiten eta eztabaidatzen. Hezkuntza maila ona duen gazteria



■ ■ **Ilusio handiz hartu du Pacok erronka berri hau.**

dator eta hori aprobetxatu behar da. Lehen esan bezala hitzarmenak sinatu behar dira. Bestalde, argi dago gizarte guztietan hirugarren sektorea nagusitzen ari dela, etorkizuna hor dago eta kontuan izan behar da, nahiz

eta Euskadi industrialia izan den beti.

**- Euskal Banku Publikoaren aldekoa al zara?**

- Beste gauza asko bezala, politizatu egin da. Ikuspuntu teknikotik begiraturia irrelebantea iruditzen zait, batez ere kontuan edukita Europar mailako banku baten proiektua ere hor dagoela, baina herritar euskaldunek euskal banku bat nahi badute... Halere, kontuan izan behar da Euskal Herrian aurrezki kutxa oso indartsuak dauzkagula eta horiek aprobetxatu beharko lirateke.

**- Zer esanahi du postu honek zure bizitzan?**

- Ezer berezirik ez. Pozgarria da, noski. Lehengo egunean irakurri nuen Julen Guerrerok esaten zuela denori gusatzen zaigula maitatuak izatea, hala da. Profesionalki asko ikasiko dudala argi daukat. Bertigo piska bat ematen dit baina kuriositatea, jakin mina handiagoa da beldurra baino, ez, ez daukat beldurrik. Ilusioa egiten dit erronka berri honek.

*aurrez aurre*

**- Francisco ala Paco?**

- Idazkari batek ezik, mundu guztiak Paco deitzen nau, Paco, beraz.

**- Umetan ona al zinen matematikatan?**

- Normala, ez nintzen bikaina, inundik inora.

**- Liburu bat?**

- Bat ez, hiru: "El Principito", eta Joseph Conrad-en "La linea de sombra" eta "En el corazón de las tinieblas". "La linea de la sombra" arrakasta eta porrota, maitasuna eta gorrotoa bereizten dituen lerro finari buruzkoa da. Bigarrenean, berriz, paradoja bat egiten du bidaia bat hartuz bakoitzak bere barne mundua aurkitu ahal izateko.

**- Zure bizitzako oinarria?**

- Familia eta barne oreka.

**- Ezaugarri bat?**

- Naturalitatea.

**- Gustuko musika?**

- Pretenders, Dire Strait, Bruce Springsteen, The Rolling Stones... Bai eta Mozart edo Bach ere.

**- Nork daramatza zure etxeko diru kontuak?**

- Nire emazteak, ni ez naiz ezertarako sartzen.

**- Zer esango zenioke Mario Conderi aurrez aurre aurkituz gero?**

- Balore etikoen falta eta efimeroa oinarri diren gizarte bateko produktua dela. Ez dela jarraitu behar den eredu bat eta Mario Conde izango ez balitz hobe izango zela.

**- Bizitzeko toki bat?**

- Elgoibarren bizitzen jarraitzeko asmoa daukat, dudarik gabe.

## San Valentín, maiteminduen eguna

**O**tsailaren 14ean maiteminduen eguna ospatzeko ohitura aintzina-aintzinakoa dugu, eta, zerikusi gutxi du gaur egungo interes komertzialek sorturiko ospakizun kontsumistarekin.

Badirudi, tradizio hau Frantzian sortu zela. Hasera batean mundu guztiak ospatzen zuen jai hau, bai zahar eta haurrek ere, horrela, maitasun adierazpenak mundu guztiarengana hedatzen zirelarik.

Baina inork ez daki nola eta zergatik lotu zitzaion jai hau San Valentinen irudiari. Entziklopedietan begiraturaz, hiru Valentín ezberdin aurki ditzakegu: lehenengoa apaiz erromatar bat da, bigarrena Terniko Gotzaina (biak martiri hil ziren 268. eta 231. urteetan hurrenez hurren). Hirugarrena, ordea, Erromatar inperioko probintzia bateko (Retia) ebanjelizatzaile izan zen. Hiru hauetatik maiteminduen zaindari nor bihurtu zen esatea erabat nekeza egingo zaigu. Esan dezakegun gauza bakarra honako hau da: ingelesek XV. menderako, San Valentín maiteminduen patroitzat zeukatela. Gaurregun ere, ingelesek inork baino modu adierazgarriagoan ospatzen omen dute egun hau, bihotz gorriak nonnahi eta logika handiegirik gabe askotan, han eta hemen ikusten direlarik. Egundorretan gure herriko hainbat dendak eta tokik erakutsi zuten itxuragatik ohitura honek gero eta indar gehiagoz ikutuko gaituela esango nuke.

Jai honek, gaur egungo portaera kontsumista bihurtu arte, izan duen bilakaera asmatzea ez da zaila. Badirudi, interes industrial eta komertzialek, maitasuna adierazteko zerbait erostera behartzen gaituztela. Hau ez da egia, ordea. Kontuan izan beharko genuke, gure maitasuna azaltzeko ez dagoela opari beharrik, ezta egun berezirik ere; egin dezakegun oparirik hoberena eguneroko elkarbizitzan maitasuna bera indartzea da. Baina nori ez zaio gustatzen noizean behin, eta are gehiago horrelako egunetan oparixoren bat jasotzea? Niri bai behintzat; besterik ez bada, urtean behin gutxienez gutaz gogoratzen diren seinale.

**EMAKUMEENTZAKO  
TXINTXON TXAPELKETA**

- Saria: ATERPE TABERNAN  
4 irabazleentzako afaria.
- Eguna: Martxoak 8

• Tokia: Gure-Denda  
(San Roke).

• Ordua: arratsaldeko 3ak

IZENA EMATEA dohainik izango da eta interesatuak apunta zaitzete Gure-Dendan.

■ Antolatzailea: ANDRAIZE  
Emakume Taldea

■ Laguntzaileak: ATERPE  
taberna eta GURE-DENDA

**Kartutxo  
Pub**



S. Frantzisko, 83 ☎ 74 27 24

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu  
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

**UDA**  
ELGOIB



NEREA LODOSO

**Salvador Celaya**  
ITURGINTZA



BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

**ITURGINTZA**  
GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

**TIRO RIRO**



San Francisco, 5 ☎ 74 13 86



## Ospatu al duzu San Valentín eguna?



**MARI CRUZ FERNANDEZ**  
42 urte etxeoandrea

Gogoratu ere ez. Ez daukagu ospatzeko ohiturarik, beste egun bat bezalakoa da. Opari bat jasotzeak edozein egunetan egiten du ilusioa.



**DOMINGO ACUNA**  
61 urte, jubilatua

Jehovako Testigoa naiz eta guk ez dugu egun hori ospatzen. Gure ustez maitasuna egunero bizi behar da gure seme-alaba eta emaztearekin.



**MIREN NOGERO**  
28 urte, ATSa

Erdipurdi. Ez dogu oparirik egiten, zorionak eman elkarri. Astebukera tokatzen bada afaltzera edo urtetzen gera.



**JOSEFA AIERDI**  
65 urte, etxeoandrea

Aurten ez dogu zelebrau baina oin arte bai. Gustatzen jakuz holako gauzak, egun politxa da eta berezixa eitzen saiatzen gera.



**VICENTE CARO**  
19 urte, forjako langilea

Bai, neskari musu handi bat eman nion eta berak neri ere bai. Lehen gehiago bizi izaten genuen, orain lanean egonda, zailagoa da.



**FRANCISCO MARTINEZ**  
35 urte, errektifikatzailea

Bai. Zorionak ematez gain elkarri opariak egin dizkiogu, emazteak prismatikoak eta neuk arropak. Modu berezian bizi izan dugu.

**AFARI MERKEAK**  
**Gure berezitasunak:**  
- Kazuelatxoak  
- Olagarroa  
- Haragia erreta

**BODEGA**

*Ondo pasa  
l'haunteriak!*

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00 ELGOIBAR



## ■ Odol ateraldia

Odol Emaileen Elkarteko odol banku bat Elgoibarren izango da hil honen 17an, ostirala, aurrez deitutako pertsoneri odola ateratzeko. Emaileen elkarteak herritar guztiei luzatu nahi die deialdia, odola emanez biziak salba daitezkeela gogoraraziz. Era berean odola emanez zein bazkide babesle eginez lagundu daitezkeela azpimarratu nahi dute. Odola ateratzeko bankua Pedro Migel Urruzuno kaleko 8an egongo da irekita arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean.

## ■ Bandaren kontzertua

Musika Bandak ohizko kontzertua eskainiko du igandean, hilak 19, Herriko Antzokian. Lehenago, goizeko 10etan Dultzaineroek kalejiran joko dute. 12,30etan hasiko den kontzertuan 6 musikalan joko dituzte J. A. Osorok zuzenduta. Lehena "2040 con 7" Astorgarena, "El bueno, el feo eta el malo" filmeko "Il Triello" (Morricone), "Las alegres comadres de Windsor" (Nicolai), Manfrediniaren "Allegro - Concierto N°2" Chueca maisuaren "El chaleco blanco" eta Talens-en "Traner" pasodoblea.

## ■ Gazteentzako sexu heziketarako egitaraua

Elgoibarko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Udal Zerbitzuak sexu heziketa ikastaro bat antolatu du Ikasketa Sexologikoen Elkarteko zuzendaritzarekin bat eginez. BBBko eta REMeko lehen mailako gazteei zuzendua dago ikastaroa, sexu gaietan informazioa eskainiz, osasun sexual hobeko bat lortzeko asmoarekin. Klaseak Ikasketa Sexologikoen Elkarteko teknikoek emango dituzte. Gurasoei eta irakasleei ere heziketa iharduerak burutzeko aukera eskainiko zaie. Ikastaroan parte hartu nahi duten gurasoek 74 02 67 edo 74 10 08 zenbakietara dei dezakete hilaren 21a baino lehen.

## Orduategiaren inguruko eztabaida sortu da herriko dendarien artean



**M**erkatarien artean eztabaida sortu da zenbait dendak igandetan irekitzea erabaki dutelako. Honi buruz hitz egiteko Txankakua elkarteak antolatu zuen bileran hogei bat dendarik orain arteko ordutegia mantentzea erabaki zuten. Txankakua elkarteko dende beraz, 9etatik 1era eta 4,30etatik 8ak bitartean irekiko dute lanegunetan, eta larunbategian goizez bakarrik; igandetan,

berriz, ez dute irekiko. Bileran ez ziren egon zabaltzearen aldekoak direnak, janari denak, alegia. Txankakua ustez ez du merezi jaiegun batean irekitzeak, atsedenerako eguna baita. Oraingoz hiruzpalau soilik dira igandetan irekitzearen aldekoak baina denda gehiagok zabaltzea erabakiko balute, irtenbide bat topatu beharko litzatekeela azaldu dute Txankakuko ordezkariak.



**Eibarko "...eta Kitto!"** herri aldizkariak 100. zenbakia kaleratu zuen joan den astean. Gertakizun honen inguruan hainbat ekitaldi antolatu zituzten eibartarrek, tartean ostegunetan burutu zen "Euskarazko herri prentsaren geroa" izenburuko mahaingurua. Bertan Alberto Agirreazaldegiri BARRENEko zuzendaria moderatzaile lanetan aritu zen, Jose Mari Zeberio Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia, Jose Inazio Armentia EHUko irakaslea eta Joxe Aranzabal Arrasate Press aldizkarioko sortzaileetarikoa eta herri prentsan aditua hizlari izan zirelarik.

## Mikel Ibañezi ongietorria egin zioten larunbatean



**M**ikel Ibañez euskal preso politikoari ongietorria egin zioten joan den larunbatean. Gestorek eta herriko beste talde batzuek antolatutako ekitaldian bertsolarien, dantzarien eta txalapartaren jarduna izan ziren. Gestoren eta senitartekoen lore sorta jaso ondoren, Elgoibarko HBk, Jarraik eta Gazte Asanbladak operari bana eman zioten. Ibañezek hitz egin zuen jarraian eta manifestaldi bat eginez kaleak zeharkatu

zituzten bukaeran.

Mikel Ibañez elgoibartarra aske utzi zuen Entzutegi Nazionalak joan den asteazkenean bere aurkako akusazioak baliorik ez zutela frogatzean. Ibañezek sei urte pasa ditu Elgoibartik kanpo. Izan ere, Uruguayen bizi izan zen iazko abuztuaren 25era arte, Josu Goitia eta Luis Maria Lizarralderekin batera estraditatu zuten arte, hain zuzen.



**Ikastolako 5. mailako** Maite Uriartek, Ainhoa Uriartek, Asier Elustondok eta Asier Barrutiak osatutako talde honek bigarren postua eskuratu zuen joan den ostiralean Tolosan jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Xake Txapelketan. Alebin mailako kategorian txapeldun orde geratu ziren elgoibartarrak Colegio Ingles San Patricio eskolako atzetik. Colegio Ingles-eko ikasleak fin ibili ziren tableroko fitxak mugitzen eta hortaz txapela irabazi zuten.

## Trinidadetako nagusien tanborradarako deialdia

Elgoibarko gazte kuadrila batek Trinidadetako nagusien tanborradaren ohitura berreskuratu nahian, bilera bat egingo du hil honen 25ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ezertan hasi aurretik herriko gainontzeko gazteek, neskek zein mutilek, desio bera duten ala ez jakin nahi dute. Hau dena komentatu eta tanborrada egin daitekeen ala ez aztertzeko egin nahi dute aipatu bilera. Gonbitea nagusien tanborrada berpizteko gogoia duten kuadriletako ordezkarietzat da. Bilera larunbatean, hilak 25, goizeko 11etan izango da.

## Eskaparatismo eta kontabilitate ikastaroak

Txankakua Merkatari eta Zerbitzarien elkarteak herriko merkatariari zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu, bata kontabilitatearen inguruan eta bestea eskaparatismoari buruzkoa. Kontabilitate ikastaroa hil honetan hasiko da eta eskaparatismo ikastaroa hil honetan bertan edo martxoan burutuko da. Azken honetan bi maila egongo dira, bat hasten direnentzat eta bestea, maila aurreratua. Bi ikastaroen zenbatekoa 5.000 ptakoa izango da bazkideentzat eta 15.000 pta bazkide ez direnentzat. Izena emateko 10 66 66 zenbakira deitu Nereagatik galdetuz.

## Korrikaren 9. edizioa antolatzeko bilera

Korrikaren 9. edizioaren antolakuntzaren gorabeheren berri izateko bilera bat antolatu du AEK euskaltegiak hilaren 21ean, asteartea, iluntzeko 8etan Kultur Etxeko ganbaran. AEK euskaltegiak dei egiten die herritar guztiei bilerara ager daitezen.

Jesus Angel Hijano:

## "Nire lana gainditzen ez dutenei laguntzea da"

Ingenieritza eta matematika ikasketak egin zituen. Duela zortzi urte oraindik ikasketak bukatu gabe zituela diru piska bat ateratzeko partikularrak ematen hasi zen. Inoiz pentsatu ez bazuen ere, gaur egun bere ogibide bilakatu da. Euskaldun berria

da. Haseran bere kabuz eta gero barnetegi eta euskaltegian urtebete egin ondoren ikasi du. Zaila den arren ez dela ezinezkoa eta nahi izanez gero euskara ikas daitekeela esan digu. Bizitza osoa ikasten pasatzea gustatuko litzaioke dirua izanez gero.

- Euskara ikasi zenuen...

- Bai, ingenieritza ikasten nengoela ingelesa eta alemaniera ikasi nituen. Baina gerora klaseak ematen hasi nintzenean konturatu nintzen klaseak emateko beharrezkoa zela euskara jakitea eta honela, haseran nere kabuz, klasean ikasleei entzuten niena eta zientzietako hiztegia ikasi nituen. Gerora barnetegietara joan nintzen eta azkenik iaz euskaltegira joan nintzen urte osoan. Gustatuko litzaidake hobeto hitz egitea baina espero dut erabilpenaren poderioz nire euskara hobetzea.

- Zer ikasgai irakasten dituzu?

- Institutuan, Mekanika eta Unibertsitatean ikasten dutenei fisika, kimika, matematika, aljebra... irakasten diet. Guztira gutxi gora behera laro-gei bat ikasle ditut eta talde bakoitzean zortzi ikasle.

- Egia al da gainditzen ez dutenak ez dituzula onartzen?

- Ez da egia. Kasu berezi batzuk izan nituen. Bere garaian ez zidaten esan ez zutela gaiditu eta udara igaro ondoren gaia gaiditu gabe zutela esanez etorri ziren, horregatik ez nituen onartu, gezurre-



"Justua ez izan arren, nola neur daiteke ikasle batek dakiena azterketa bidez ez bada?"

tan ibili zirelako. Aitzitik, nire lana gaiditzen ez dutenei laguntzea da, beharrezkoa den maila lor dezaten.

- Partikularrak ematearren alderik txarrena?

- Irakasleengandik jasan behar dugun presioa, nahikoa aspertua nago partikularrak ematen ditugunok kalte handia egiten diegula ikasleei eta sistemari entzuten. Nik ez dut uste ezer txarrik egiten dugunik. Partikularrak betidanik egon dira eta egongo dira.

- Zer da zailena azalpe-

nak ematerakoan?

- Ikasleek duten mailak asko baldintzatzen zaitu. Institutu edo Mekanikako ikasleei ulertarazi egin behar zaie baina unibertsitate mailako ikasleen kasuan, maila altuagoa denez, gaia menperatu egin behar duzu erabat eta askoz gehiago prestatu behar dira gaiak. Honez gain, zientzietako ikasgaietan irudimen handia behar da baina guzti hori praktikarekin ikasten da, arituz.

- Azterketak egitearen aldekoa al zara?

- Ez dira bat ere jus-

tuak ikasleak urduri jartzen baitira, egun txarra izan dezaketelako... Baina, nola neur daiteke ikasle batek dakiena azterketa bidez ez bada? Eguneroko lana azterketa batean egiten dena bezain garrantzitsua da. Baina azterketak beharrezkoak dira bestela ez baitlegoke irizpide objektiborik ikasleen jakinduria neurtzeko.

- Txuletarik bai?

- Ez, baina zientziaren arloan garrantzitsua gaia ulertzea da. Gauza bat gaia ulertzea da eta beste bat formulak jakitea. Azterketatan formulak edukitzea komenigarria dela esatera ez naiz ausartzen baina zientzien kasuan helburua ez da formulak jakitea, egiten dena ulertzea baizik.

- Nola ikusten duzu hezkuntza?

- LOGSE delakoa urte gutxi barru jarriko da martxan Estatuan eta ez dakit ona den ala ez baina argi dagoena zera da, unibertsitateko maila altuagoa dela eta institutuan ematen dena ez dela nahikoa. Beraz, batazbesteko bat aurkitu beharko dute, edota unibertsitateara joan nahi dutenek beren kabuz gehiago ikasi beharko lukete.

MAITE IRIONDO

# Zcj ct tcm BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 10. GEHIGARRIA



**I**rakurtzen dutenik ez du inork ukatuko, begira bestela argazkian agertzen direnen aurpegiak, zein baino zein kontzentratuagoa irakurketan. Denbora librea izaten denean nola edo hala betetzen saiatzen gara guztiok, bakoitzak atsegina duen erara. Gaurko honetan, gure herriko nagusiek irakurketari tartetxo bat

eskaintzen diotela erakutsi nahi izan dugu. Horrezaz gain, pare bat libururen izenak aipatuko ditugu, adin konkretu horretako pertsonei bereziki zuzenduak daudenak. Irakurketa zaletasuna bultzatu nahian hainbeste kanpaina egiten den garai honetan, hona hemen inork esan gabe, irakurketari berez ekin diotenen adibidea.

## "SABER ENVEJECER"

F.J.Flórez Tascón eta J.M. López Ibor  
275 orrialde  
Temas Hoy. BolsiTemas

Endrokinologo geriatra bat eta psikiatra bat dira honako liburu honen egileak. Bertan, izenburuak azaltzen duen bezala, zaharzarorako bidea ahalik eta hobekien bizitzeko eta onartzeko hainbat aholku azaltzen dira. Pena mezezi duen liburu bat adin guztietarako.



## "LA FUENTE DE LA EDAD"

Betty Friedan  
677 orrialde  
Planeta

Gaztaroa gorai patzen duen gizarte batean nagusi izateak duen garrantziari buruz hitzegiten da liburu honetan. Maitasuna, jubilazioa edota zaharren egoitzak dira, besteak beste, ikutzen dituen gaiak, guztiak esperientzia konkretuekin azalduz.



## PATXI OSORO: "Txahal baten adarrakin konpondu naban behin erloju bat"

Ez da aukera gehiegi izaten horrenbeste bizipen dituen pertsona bat askotan ezagutzeko. Oraingo honetan, Patxi Osororekin izan gara, herrian aski ezaguna dugun erloju konpontzailea. 80 urte ditu eta anekdota mordo bat, barra barra bata bestearen atzetik kontatzen dituenak. Pena da, baina, guzti horiek idazteko tokirik ez izatea. Gaurkoan oroitzapen hauekin konformatu beharko gara. Izango da hurrengo batean gehiago azaltzeko aukerarik.

- Idiazabaleta baserrian jaio zinen.
- Bai. 8 urtekin galtzerdi bustixak jantzi eta gero, ez zian sikatzen eta, jata hanka guztia ozpelaz beteta, astua hartu eta esnia partitzaera bajatzen nitzan kalera. Andra asko ni engaiñatu nahixan egoten zian, kazokada gehixao bota-tzeko esaten zien.
- Nolatan hasi zinen erlojuak konpontzen?
- Berezkoa izan dot nik hori. 11 urte nitxuanian, baserri baten erlojua geizki zabilela eta, bertara jun nitzan. Lenenengo garbitxu egin naban, hautsez beteta zauan eta. Gero, txahal baten adarrari pusketa bat kendu eta botila batzuren kristal zati batekin raskatu eta raskatu ibilitxa gero, muellia egin naban harekin.
- Eta "milagrorik" ere inoiz



egin izan duzula entzun dut.

- Arnedilloko elizan bazauan urte askuan funtzionatzen ez zaban erloju bat, inork ezin izan zaban konpondu. Usuen kaka zakan gainian eta haura ondo garbitxu bihar zan. Neuk konpondu naban. Arnedillon aspaldiko partez entzun zebe erlojuaren musikia eta herritar guztiak hasi zian diarka, "milagro, milagro!".
- Txondorgintzan ere ibili izan zara.
- Bai, oin apenas dago txondorrik baina nere epokan ugarixak zian ta neuk ere banakan bat. Hantxe ibiltzen nitzan neu ikatza eitxen ta gero dendan saltzen. Akordatzen naiz, Gabi taberna atzian dauan karkabara etortzen ginala, garua ekarri eta han itxen genduan zimaurre.
- "Don de Dios" daukazula esan izan dizue.
- Bai, Lucio Aranak. Beste behin Bideurraga medikuak hauxe esan zian: "Artista izpiritua nakala bai eta zientifikua izateko ahalmena ere". Askotan esan die ni bezelakuak ez ziala sekula hil bihar.

Arnedilloko elizako erlojua konpondu nabanian "milagro, milagro" hasi zian herrikuak.



- Soldadutzan ere erlojuak konpontzen zenituen.
- Bai, bai. Soldadu nitzala, "cambio de guardia" egin bihar genduan baina despertadoriak jo ez eta lo geratzen ginan. Jun nitzan kapitana eta esan nion erlojua konponduko nabala. Gero, kapitanak bere etxera eraman ninduan haren erlojuak konpontzera.
- Anekdota ugari izan zenituen soldadutzan, ez?
- Bai, gauza asko. Beste behin janarix partitzen ere ipini zien. Akordatzen naiz ondiok ere, armuzatzeko txokolate zati txiki bat eta bazkaltzeko zazpina garbantzo ale bakoitzantzat. Haura zan gure jateko guztia.
- Jose Antonio Agirre eta Leizaola Lehendakarien eskolta izandakoa zara, Patxi.
- Bai. Entzun genduan eskolta biharra zauala eta jun ginan lagun bat eta neu. Txiki txikixak zian ixa danak gure aldi, gu altuak! Eman ziguten lana ta, "policia motorizada" deitzen zana izan ginan gu, motor eta guzti.
- Horrenbeste gauza egin eta gero, denbora ondo aprobetxatu duzu, ez?
- Denboria neuk aprobetxatu! Nitaz aprobetxatu dia batzuk! Baina denborarik ez andria eukitzeko!

# Zaharra izenez, gaztea izatez

Orain hilabete batzuk laugarren adinari buruzko artikulu bat idatzi genuen atal honetan, 80 urtetik gorakoek osatzen duten tarteari deitzen zaio horrela.

Oraingo honetan, Zaharren Biltokian izan gara eta gauza batek benetan harritu gaitu, bertan elkartzen direnek duten bizipozak, "alegria" eurak esaten

duten bezala. Zahartzaroa iritsi zaie askori, halere, zaharra izate hori barrutik kanpora ateratzen den sentimendua da, fisikoki ematen diren aldaketekin zerikusirik izan gabe. Eta lau pertsona hauen hitzak gehien ahotan jartzerik balego, Elgoibarren 60 urtetik gorako ehundaka gazte ditugula lasai asko esan genezake. Hala bedi!

**1- Zenbat urte daukazu? Jadanik ala oraindik?**

**2- Zaharra sentitzen al zara?**


**3- Zer da zaharra izatea?**

**4- Zein da zure bizipoza?**

**5- Zer irabazi duzu urteekin?**

**6- Bueltatuko al zinake gaztarora?**

**7- Nola onartzen dira aldaketa fisikoak?**



**JOSE ELIZONDO**

- 1 - 65 urte oraindik.
- 2- Ez, zaharra ez.
- 3- Lagunari segi ezinda egotia, osasunik ez eukitzia... Batzuk izan be sentidu eitzen dia zaharrak, bizitzeko poza galtzen dabe.

**4-** Egunian lau bat ordu egiten ditxut egurra tailatzen, horixe da gustatzen jatana eta hori itxeko kapaza naizen artian, ni pozik.

**5-** Bizitzeko esperientzia.

**6-** Oin dakitxenakin gaztia izaterik egongo balitz... baina, honenbestian ondo nago ni.

**7-** Hori jatorritik dator, naturala da zahartzia baina inportantia da barrutik ez sentitzia zaharra.

**1 -** 73 urte eta asmua jarraitzeko oraindik ere. Medikuak ez dakit zer esango zaban baina ni ondo sentitzen naiz.

**2-** Ez, inundik inora.

**3-** Ez dakit ba. Neri gaztiekin egotia gustatzen jata ze harek bizitxasuna emateizu, norbera piztu eitzen da.

**4-** Deportia eixia. Nik beti asko korritxu izan dot eta oso ondo egin dia, holaxe jarraitzen doten bitxartian ni pozik.

**5-** Jendia ezagutu,



**JOSE GURRUTXAGA**

gauzak ikusi eta jendia-kin elkartasun gehixao eukitzia.

**6-** Ya lo creo!

**7-** Ondo. Urriak pasa ahala saltakia jaitsi itxen da baina ez naiz arduratzen.



**JULITA ANSOLA**

- 1 - 65 urte eta gerra asko dakat emateko ondiokan.
- 2- Ez, batere ez, alegria eta bizitzeko gogo haundixa dakat., ez da hasi aldapa beheria.
- 3- Lanik ezin eginda, geldi geratzia, nerbixoripe eta besteengandik depen-

ditzia...

**4-** Bizipoza? Gustura bizi naiz, bilobekin ta familiakina eta Zaharren Biltokira etortzeko desiatzen, lagunekin epel-epelian txaxaran eta karta jokuan..

**5-** Ez dakit ba zer esan horri, ni beti bizi izan naiz gizonakin eta umiekin etxian eta... Ondo.

**6-** Ez, ez, ez. Ni konforme nago, ez dot faltarik botatzen, ontxe bizi naiz ni onduen!

**7-** Ez diot inportantziarik ematen, ni konforme nago.

**1 -** 78 urte oraindik, jaunari eskerrak ondo sentitzen naiz eta.

**2-** Ez, nire betebeharrak, errekaauak, etxeko lanak eta egiteko kapaza naiz.

**3-** Gauza oso tristea. Ezer egiteko gai ez zarenean eta inork nahi ez bazaitu...

**4-** Bilobek osasuna eta lana izatea. Eurak dira nere poza, beraien besarkada eta mimoak

**5-** Aurrera joateko behar diren gauzak, kultura orokorra. Guztia lan eginez, josiz...

**6-** Enkantada! Baina hori ez denez posible!



**GLORIA ARANO "MANU"**

**7-** Ondo! Beti bizi izan naiz gazteen artean eta hori barruan geratzen da. Zimurrek ez didate lanik ematen, osasuna dakat, bizipoza eta ispilua begiratzean: Gloria, zeinen guapa zauden gaur!

## Hidroterapia

**O**rain dela 2.000 urte ohartu ziren ur termala sendagarria zela. Hipócrates, mediku greziarra, hain zuzen ere, hainbat gaisotasun sendatzeko urak erabiliaz famatua egin zen. XIX. mende hasieran Fernando VII.ak bere emazteetarikoa bat Solán de Cabras izeneko herri batera eraman zuen hango urak edanaz haurdun geratuko zen esperantzaz.

Halere, bainuetxeen benetako arrakasta 20ko hamarkadan eman zen. Garai horretan Estatu mailan 186 bainuetxe zeuden martxan. Sasoiko aristokrata, burges eta dirudunak La Toja, Zestoa eta Panticosako bainuetxeetara joaten omen ziren. Baina, bainuetxe hauek beherantz egin zuten María Cristina Erreginak Donostiako hondartzan bainu bat hartzea erabaki zuenenean eta Santanderrera jo zuenean bertako airea arnastu nahian. Ordutik aurrera itsasoak bainuetxei tokia jan zien.

Gaur egun, aldiz, badirudi bainuetxeak berpizten ari direla. Medikuntza naturistaren eskutik hainbat gaisotasun ur termalen bidez sendatzen dira. Era berean, oso ondo etortzen da bainuetxeetan denboraldi lasai bat igarotzea, egunerokotasunetik at, tentsioak askatzeko, izpiritua berritu eta nor bere burua aurkitzeko.

**Ur motak**

**Bikarbonatodunak:** Iodi, diabetiko, gastriko eta artrikoentzat onuragarria.

**Kloruro sodikoak:** estimulanteak, antiinflamatorioak, azalaren defentsak gehitzen ditu eta gaisotasunetik babesten. Gibel eta sabeleko arazoak dituztenentzat.

**Ferruginosoak:** Anemia, haurrengan ematen diren hazkuntza arazoak eta loditasunaren aurka.

**Sulfatodunak:** idorreria-  
ren aurka.

**Sulfuratuak:** arnasketa

aparatuaren gaisotasunen aurka bai eta erreuma zein azal edota eztarri arazoetarako ere.

**Radioaktiboak:** Sistema nerbio-soarentzat. Analgesikoak eta sedanteak dira, estresaren, ansiedadearen eta depresioaren aurka.

**Teknika eta terapiak**

**Aerosolak:** dispositibo hauen bidez ura tanta txikitik bihurtzen da amastu ahal izateko.

**Bainuak:** banakakoak zein taldekakoak izan daitezke. Tenperatura aldakorra da ur motaren arabera. Hidroterapiaren kasuan urari presio eta airezko burbuiak gehitzen zaizkio.

**Txorroak:** ura presio modura aplikatzen da. Erlajazio muskularra eta estimulazio orokorra lortzen da.

**Dutxa eta masaiak:** masaia azalekoa da eta igurtziak graduak.

**Arnasketa:** uraren lurruna arnastean datza.

**Buztina:** sustantzia organikoak, karbonikoak eta mineralak nahasten dira. Gorputz osoa estaltzen da.

**Kneipp:** Ura, ariketa, eguzkiaren argia, aire garbia, belarrak eta dieta orekatu baten konbinazioa estresaren aurka.



**PEDRO SALINAS**  
67 urte

## VALENTZIAR ERARA EGINIKO PAELLA

**OSAGAIK (8 pertsonarentzat):**

Arroza, untxi bat eta erdi, idarrak laurden bat, bainak beste laurden bat, tomatea, olio, gatza, berakatza eta ura, arroz basokada bakoitzeko bi baso bete ur.

**PRESTAKETA:**

Oliotan berakatza, untxia, bainak eta idarrak erre behar dira, bigundu arte. Gero arroza gehitu behar zaio, dena nahastu eta ura botaz gainetik, esan bezala arroz neurri bakoitzeko bi neurri ur. Su suabea jarri behar da, poliki poliki egin dadin eta gehiegi egosi gabe, bestela untxia gogortu egiten baita. Nik kolorantea ere botatzen diot, Valentziako kolore berezi hori har dezan janariak. Primerakoa geratzen da eta ardo beltz goxo batekin bustiz gero, bueno, mundiala!



## Mila Osa

### "Ineko" dendakoa

● **Zein zen zure umetako ilusia?**

▶ Abeslaria eta dantzaria izatea. Garai batian koruan ibili nitzan baina eztarria oso sensiblerik dakat eta segiduan izorratzen jata.

● **Juergarako egun bat? Toki bat?**

▶ Gabon Zaharra bereziki, eta toki bat aukeratzekotan, jende asko eta giro ona egoten den edozein herri.

● **Zeren truke joango zinateke baserrira bizitzera?**

▶ Ez nintzake joango.

● **Maitasunagatik egin duzun astekeriaren bat?**

▶ Ez dot beharrik eduki.

● **Sekula jaso al duzu zerbait San Valentín egunean?** ▶ Bai, lora bat notatxo batekin eta bihotz itxurako kaxa batean bihotz formako bonboiak.

● **Desertuaren erdian iturri bat aurkituko bazenu zer nahi zenuke irtetea bertatik?**

▶ Ura, ur freskua, egarrixaren kontra onena da eta.

● **Non egingo zenuke zulo bat belarrian ezik?**

▶ Sudurrean, akaso.

● **Zeren tatuaiia egingo zenuke? Non?**

▶ Besoan egingo nuke eta larrosatxo bat edo suge baten irudia aukeratuko nuke.

● **Etzango al zinake fakirrak bezala iltzeek eginiko ohe batean?**

▶ Ikusiz gero beste norbait etzaten dela eta ez zaiola ezer pasatzen, bai.

● **Nork merezi du "mangerazo" on bat?**

▶ Politiko guztiek.

● **Burura etortzen zaizun lehenengo abestia?**

▶ Whitney Huston-en "El guardaespaldas" pelikulakoa bai eta Ghost pelikulakoa ere.

● **Telebistako iragarki bat?**

▶ Ikusi ere ez ditzut egiten baina gehien Kas eta Coca Colarenak gustatzen zaizkit.

● **Zein animalia aukeratuko zenuke zure buruaren aurkezpena egiteko?**

▶ Katuarekin nahiko identifikatzen naiz, lotsati samarra...

● **Beti gazte mantenduko zintuzkeen pozima magiko bat aurkituko bazenu?**

▶ Gustura edango nuke, gaztetasunaren osasuna eta juerga gogo bezalakorik ez dago.

● **Zein ile orrazkera egingo zenuke ausartuz gero?**

▶ Motz motz eta beltza erabat.

● **Ikustezina bazina?**

▶ Toki guztietan sartuko nintzake, elkarrizketak entzuteko. Oso ondo egongo litzateke!

● **Esaiguzu gezur bat?**

▶ Lehen erantzun dudun galdera bati kontra eginez, politikoak direla pertsonarik jatorrenak.



## KIROLA ETA KIROLARIAK

### DOINUA:

Adiskidea Andoaindikan

Gure herriko kirolariak

aipatu beharrez nago

ehiza munduan Arriola da

edozein baino gehiago

futbol arloan Etxeberria

geroago ta gorago

kirol munduan ez gara edozein

hori oso argi dago (BIS).

Mugerza Krosak mundu guztian

errespetoa irabazi

korrikalari onenak hemen


urtero dira ikusi

zaletasunak iraun dezala

ta orain bezala bizi

kirola eta kirolariak

gure herrian nagusi.



AITOR GONZALEZ

*Lurrindegia*

**LURRINDEGIA**  
San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99

*Karnabaletarako  
behar dituzun  
apaingarki  
guztiak ditugu!*

**AULIA**

**SAGARDOTEGIA**

Legorreta ☎ 80 60 66



## Kalegoengo San Bartolome parrokia

- Gaur egun ezagutzen dugun Parrokiari "Kalegoengo San bartolome" deitzen zitzaien hasera batean. Izen hau eman zitzaien Elgoibarko kale goenean zegoelako kokatua eta Olasoko San Bartolome (egungo kanposantua) parrokiarengandik bereizteko.
- Villamayor de Marquina (gaurregungo Elgoibar) 1346an hiribildu egin zenetik, Olaso zen erret



patronatoko parrokia. Bere babesean Mendaroko Azpilgoetako Andra Mari eliza eta Elgoibarko San Frantzisko komentua zeuden.

- XVII. mendean eman ziren Parrokia berria eraikitzeke lehen urratsak baina askoz lehenago ikusten zen herrian premia.

- Kalegoengo San Bartolomen 1716an eman zen lehen meza. 1773. urtera arte San Bartolome izeneko eliza biak aritu ziren, ondoren Olasokoa hilerri bilakatu.
- Eliza berria herri barruan eraikitzeke arrazoiak honako hauek dira: Olasoraino joateko ibili behar zen bide luzearen eta bi aldapa igo beharraren erosotasun eza. Arazo bera zuten herritarrek ezezik baita kofradietako kideek, maiordomoek bai eta hildakoen sufragioak ateratzen zituztenek ere.
- Gaisoei sakramentua eman ahal izateko errebal ondoan, Maalako ermitan bazeuden sakramentu ontziak baina hemen ere arazoak izaten ziren uholdeak zirela eta.
- Azken arrazoia, berriz, ondoko hau zen: Olasoko parrokia landan aurkitzen zenez, gauza asko falta izaten ziren elizatik, hala nola, zilarra, urrea eta ornamentoak. Guzti hauek etengabeko arriskuan zeuden.

PELLO ARRIETA

## Abdon Gabilondo

(1888-1975)



AZKUE

- Bergararra zen jaiotzez. 1888. urteko uztailearen 30ean jaio zen Ziarreta izeneko baserrian.
- Ogibidez arma egilea zen. Ogibidez aparte beste langintza ugari jarri zuen: pulimentu lantegia eta oihalen denda bat eduki zituen, eta pinu-egurrak eta egur-ikatza ere saldu izan zituen.
- Aipatutakoaz gain, Alfa etxeko josteko makinaren agentzia izan zuen, Pisot eta Lambreta motorren agentzia, bai eta arraindegi, janari denda eta haragi dendentzako inoxidablezko altzairu berezien ordezkari ere.
- Lanorduetatik kanpo oilagorrek, paseko usoa eta eperra ehizatzea gogoko zuen.
- Bere bizitzako zaletasunari jarraiki, *La Union* ehiza eta arrantza elkarteko sortzaile izan zen.
- Ia hil arte, 85 urte izan zituen arte, jarraitu zuen ehizara irteten.
- 1975an hil zen, azaroaren 30ean, 87 urte zituela.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 beheka. Tel.74 28 74 - 74 05 70



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak  
Bainu manparak*

Urasandi 12 beheka  
Tel-Fax: 74 04 89

## MOTZAK

### Brontzea Ibaikoeentzat Gipuzkoako txapelketan

Ibai gimnasioko Gorka Garatek, Andoitz Agirregomezkortak eta Javier Quintanok brontzea eskuratu zuten bakoitzak bere kategorian, joan den larunbatean Errenderiko Kiroldagian izandako Gipuzkoako Judo Txapelketan. Zozketetan ez zuten zorte handirik izan Ibaiko judoek baina hala ere Gipuzkoako onenatarikoak direla erakutsi zuten. Gorka Garate hirugarren postuan geratu zen 17 urtez azpiko eta 50 kilora arteko kategorian. Bigarren jardunaldian Gorkak Espainiako txapeldunaren aurka borrokatu behar izan zuen. Biak berdintsu aritu zirela ikusita eta erabaki bat hartu beharrean zeudenez, epaileek Espainiako txapeldunari garaipena ematea erabaki zuten. Andoitz Agirregomezkortak ere brontzea eskuratu zuen 19 urtetik beherako eta 86 kilo arteko mailan eta, Javier Quintanok ere brontzea, honek 55 kilora arteko mailan. Aitor Garatek lehen bi borrokaldiak irabazi ondoren ezin izan zuen dominarik eskuratu.

### Pala txapelketa

Olaizaga kiroldegiak antolatutako pala txapelketa hasita dago Ermua, Mendaro eta Elgoibarko 12 bikotek izena eman dutelarik. Hemendik eta Aste Santura bitartean 100 partidu jokatu dira. Nahi duenak partiduak ikusteko aukera izango du.



Justo Arriola:

### "Ez naban espero lehena ateratzia"

■ **Elgoibarko bolo jokalaririk onena omen zara.** - Onena bueno, neuk ez naban espero. Suertia bihar da eta norberak zeozer eukitzia ere izango da. Apuntatzia ere, kasualidadez izan zan, beste batek eman zaban neure izena eta.

■ **Lehia gogorra izan zen?** - Bai, onak asko daude eta. San Pedrokuak eta San Migelekuak asko ibiltzen diaz kanpeonatuetan, San Rokekuak eta San Lorentzokuak berriz, bate-rez. Bigarrenak, Irustak, 16 txirlo zeuzkan jota eta nik 15. Zapatuan harek 3 bota zitxuan eta nik 5, estu egon zan gauzia. Ostian, tiradia egon zan eta han ere neuk euki naban suertia.

■ **Taldeka, San Migeldarrak irabazle.** - Ekipo ona dake, baina gu, San Lorentzoko taldia, lelenguak egon ginan azken egunera arte. Piskat-piskat ein izan bagendun bi kategorixetan ateratzeko moduan.

■ **Apustuak egiten dira oraindik?** - Lehen, sasoi baten, asko. Oin gitxi jokatzen da. Badia Bizkai alde-tik San Lorentzoko jaixetara etortzen dianak, eta hiru edo lau mila pezeta jokatzen dizue bola batera. Guk ez dogu dirurik jokatzen, premixua jartzen dou. Normalian kaja bat jartzen da eta gehixen jotzen dabanak tantopor-tziento bat kobratzen dau.

■ **Auzo bolozalea**



■ **da San Lorentzo.** - Bai. Gaztetan asko ibilitxa nao. Mutil koskorra nintzala zenbat bolo botata ete nao! San Lorentzon eta San Roken bakarrik, San Pedron sekula ez naban bota zapaturarte.

■ **Punteria, indarra... zein da sekretua?** - Berezko mañia. Oso diferentia da San Lorentzon, San Pedron edo San Roken bota. Baten indar gitxikin, suabe suabe bota bihar da, bestian igual indarra eman bihar diozu. Gero azpi-jana deitzen jakona ere izaten da, bolia ipintzeko formia. Eskulekua deitzen dana, zuloak gora begira jartzen baditxuzu, alperrik izango da munduan artistiena! Horrela ez da juten bolia, eskuan jarri bolia eta ezker aldiari jarri bihar dia zuluak. Bolia kanale-tikan jun bihar da beti.

■ **Urtean zehar praktikatzen duzue?** - San Lorentzoko jaixetan bakarrik. Lehen, baina, igandero, meza ondorenia beti jokatzen gendun.

■ **Pelotan ere ibilitakoa zara.** - Bai, bost txapel dazkat nik. Artazon omenezko kanpeonatuan eta Sig-mako kanpeonatuan ibilitxa nao. Jun dan urtian omenajia ein ziaten Sigman.

- Adina: 67
- Boloak ala ehiza nahiago? Ehiza.
- Entrenamendurik? Bat ere ez.
- Herri kiroletan gogokoena? Deporte danak, baina gehixen pelotia.

**Maria Urizar** ileapaindegi mixtoa

**ONDO PASA IHAUTERIAK!!**

Errosario 9-1 ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

**TINDATEGIA**

*Ondo pasa Ihauteriak!*

Foruen Enparantza 4  
Tel. 74 00 91

# Justo Arriola eta San Migeldarrak izan dira Elgoibarko I. Bolo Txapelketako irabazleak

Joan den larunbatean jokatu zen San Pedroko bolatokian Elgoibarko I. Bolo Txapelketako laugarren eta azken tiraldia. Interesgarria eta nerbioak puntan jartzeko modukoa izan omen zen, San Pedrotarren eta San Migeldarren arteko lehia izugarria baitzen. Azkenean San Migeldarrak geratu ziren aurretik. Banakakoan S. Lorentzoko Justo Arriola nagusitu zen.



■ ■ Goian banakako hiru lehenengoak eta behean San Migeldarrak, taldekako irabazleak.

**B**i kategoria izan ditu Elgoibarko Lehen Bolo Txapelketa honek. Taldekako kategorian San Migeldarrak estu ibili ziren irabazle geratzeko, San Pedrotarrak izan baitziren azkenak botatzen. Azken tiraldian bost txirlo jo izan balituzte San Pedrotarrek, San Migeldarrekin berdinduta geratuko ziratekeen. Azkenean bi txirlo baino ez zituzten jo San Pedroko taldekoek eta San Migeldarrak 56 txirlorik garaile geratu ziren. Dena den, lehen lau taldeen arteko lehia oso gogorra izan zen. Guztira 6 taldek hartu zuten parte, San Migeletik

eta San Pedrotik bana eta San Lorentzotik eta San Pedrotik bina talde.

Banakako txapelketan San Lorentzoko Justo Arriola San Migeleko Jose Irustari txirlo bakar bateko diferentziaz gailendu zitzaion. Partaidetza aldetik 47 bolari aritu dira lehen txapelketa honetan. Orokorean maila oso antzerkora izan da partaide guztien artean, kontuan izanik Euskadiko Txapelketan aritzen diren bakarrak San Pedroko eta San Migeleko taldekoak direla. Dena den herriko bolarien falta igarri omen da, parte hartu duten guztiak baserri-auzoetatik izan baitira.

- SAILKAPENA**
- ■ **BANAKA** ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■
  - 1- Justo Arriola, 20 txirlo (S. Lorentzo)
  - 2- Jose Irusta, 19 txirlo (S. Migel)
  - 3- Angel Ibarluzea, 17 txirlo (S. Migel)
  - 4- Jose Mari Egaña, 14 txirlo (S. Roke)
  - ■ **TALDEKA** ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■
  - 1- San Migel, 56 txirlo
  - 2- San Pedro, 53 txirlo
  - 3- San Lorentzo, 50 txirlo
  - 4- San Roke, 48 txirlo

## AGENDA

- FUTBOLA** Mintxetan Larunbata 18
- 10,00: Urki A - Urki B (Jubenilak)
  - 12 ,00: Elgoibar - Lagun Onak (Infantil)
  - 17,00: Haundi - Mungia
- Igandea 19**
- 10,00: S.D. Eibar - Antzuola (2. errejionala)
  - 16,00: Elgoibar - Don Bosco (Jubenilak)
- ESKUBALOIA** Kiroldegian Larunbata 18
- 16,00: Pagoaga Elgoibar - Leizaran (Kadete neskak)
  - 17,30: Elgoibar - Ereintza (Kadete mutilak)
- Igandea 19**
- 11,30: Txankakua Elgoibar - Jauja (Senior mutilak)
- FUTBITOA** Urasandin **Igandea 19**
- |                                  |                                |
|----------------------------------|--------------------------------|
| 10,00: Kosakos- Ametsa           | D.T. Veterans - San Rokatarrak |
| 11,00: King-Kong - G. Garcia     | Aldavas - Rua                  |
| 12,00: D. kalimotxo - Replastisa | Haritza - La Maxia             |

## EMAITZAK

- FUTBOLA**
- Hernani 0 - Elgoibar 2 (Infantilak)
  - Elgoibar 4 - Anaitasuna 0 (Kadeteak)
  - Haundi 3 - Touring 1
  - Elgoibar 3 - Intxaurren 1 (Neskak)
  - Euskalduna 3 - Elgoibar 1 (Jubenilak)
  - Elgoibar 1 - Eibartarrak 1 (2. errejionala)
- ESKUBALOIA**
- Pulpo 8 - Pagoaga Elgoibar 20 (Kadete neskak)
  - Aierru 9 - Txankakua Elgoibar 37 (Senior mutilak)
  - Elgoibar 14 - Basauri 20 (Senior neskak)
- FUTBITOA**
- |                                |                                 |
|--------------------------------|---------------------------------|
| Mimox 1- Pedruskos 4           | U. de Chile 1 - Karkis 1        |
| Fotero 2 - Lucky Luke 11       | Hunde Verboten 4 - Gruas Pana 1 |
| Resto del Mundo 3 - Tropiko 12 | Rebel Urbi 2 - Berrogei Duro 1  |

## ZUBACOR, S.L.:


### Erreminta makinan aurrera egin nahian

Ermu-erabide kaleko lokaltxo batean eman zituen haserako Zubacor-ek lehen urratsak. Bi bazkide eta langile bat ziren. Langile kopurua handituz joan zen urteetan. Geroago elkarte anonimo bihurtu zen eta beranduago elkarte murriztua. Gaurregun Ibaite industrialdean dago kokatua, urte askotan San Roken egon ondoren.


**S**aso onak, hobeak eta txarragoak pasa behar izan ditu enpresa honek. 1971n enpresaren martxa nahi ez bezalako zenez, saltzea erabaki zuten. Eroslea kanpotar bat izan beharrean, bertoko bazkide ziren Lucio Beitiak eta beste batek enpresaren kargua hartzea erabaki zuten. Betidanik erreminta makinaren sektorearentzat egin izan dute lan baina lehenago eskopetak egiteko makina bereziak fabrikatu izan dituzte eta makina berezietarako aproba bankuak deitzen direnak ere bai.

Erreminta makinaren osagaien barruan, tornuentzat bereziki diren piezak egiten dituzte, hala nola, piezak mekanizatze-ko arrastreko punto automatiko hidraulikoak eta mekanikoak... Taladroentzako eta fresadorentzako piezak ere fabrikatzen dituzte: kaskiloak, brokak... Errektifikazioetan lan ugari egiten dute azken aldian, beti ere, prezisiozko errektifikatuak.

Bezeroei dagokienez erreminta makinarentzako osagaien erosleak Elgoibarren, Euskal Herrian eta Estatuan ere badituzte. Komertzializazioaren arloa ez dute gehiegi lantzen, ahoz-ahoko salmenta oso komuna omen da. Honez gain,



■ ■ Makina bereziak egiteaz gain, osagaiak ere fabrikatzen dituzte.



#### ENPRESAREN FITXA

- ✘ **IZENA:** ZUBACOR, S.L.
- ✘ **IZEN KOMERTZIALA:** ZUBACOR eta SACIA
- ✘ **SORRERA URTEA:** 1961
- ✘ **SORTZAILEAK:** Bittor Zabala, Ladislao Unzueta, Lucio Beitia, Jose Alberdi, Luis Kortabitarte eta Jesus Rementería.
- ✘ **GERENTEA/HARREMANETARAKO PERTSONA:** Lucio Beitia.
- ✘ **IHARDUERA NAGUSIA:** Erreminta makinentzako osagaien fabrikazioa, erreminta makinaren fabrikazioa eta prezisiozko errektifikatuak.
- ✘ **BIGARREN MAILAKO IHARDUERA :** Planoetatik abiatuta, edozein motako lanak.
- ✘ **FABRIKATZEN DUTEN PRODUKTUA:** Limadorak, planeadoreak eta tornuentzako eta fresadorentzako osagaiak.
- ✘ **LANGILE KOPURUA:** 16
- ✘ **URTEKO FAKTURAZIOA:** 110 milioi.
- ✘ **ESPORTAZIOAK %tan:** % 22a
- ✘ **HELBIDEA:** Ibaite industrialdea B-1.
- ✘ **TELEFONOA:** 74 08 44/ 74 26 66

pieza bereziak egiten dituzte, bezeroak bidalitako planoetatik abiatuz. Gaurregun, Alemaniatik etortitako eskariei egun batean erantzuteko ahalmena dute, beti ere piezaren ezaugarrien arabera.

Zubacor-en beste iharduera garrantzitsu bat *Sacia* izenpean komertzializatzen dituzten makina berezien fabrikazioa da. Limadorak egiten dituzte, bersatilidade handikoak, 350tik 800 bitarteko kurtsoa dutenak eta planeadora txikiak ere bai. Makina hauek atzerrira saltzen dira gehienbat, eskoletara batez ere. Makina geldoak izanik ikasteko proposak diren makinak dira. Iaz esaterako, Mexikoko lehiaketa batera 17 makina eraman zituzten.

Krisiaren eragina igarri omen dute. Gaurregun "sobre pedido" bakarrik egiten da lan eta enpresa bat ordainketa suspentsioan baldin badago adibidez, ordaintzerako orduan arazak sortzen dira. Dena dela, azken boladan mugimendu gehixeago igartzen da, lan gehiago "sartzen" hasia dago itxuraz.





## Astebukaera bat

Nola pasa daiteke astebukaera bat Elgoibartik kanpo, ondo pasatuz, aspertu gabe, jende ezberdina ezagutuz, eta gainera, gehiegi gastatu gabe? Agian denen gustuko soluziorik topatzea ezinezkoa da, baina beharbada igaro berri den astebukaeran Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako eski irteera proposamen tentagarria izan daiteke bat baino gehiagorentzat. Zer nola pasatu duten

Belaguan  
elur artean

astebukaera igarotzera animatu diren 65 elgoibartar hauek? Hona hemen zenbait datu:

■ **Larunbata, goizaldeko 6ak:** Irteteko ordua. Mudak eta indarrak berreskuratzeko jatekoarekin motxila ondo bete, eskia-tzeko arropak jantzi, eta Plazatik abiatzen da autobusa Belaguara bidean.

■ **Bidaia:** Ahal duenak lokumuska botatzen du autobusaren motorraren soinu monotonoa loak gainditzen duen heinean. Lehen kontaktuak sortzen dira bistaz ezagunak izan arren, inoiz elkarri hitzik esan ez dioten herritarren artean. Lagun arteko giroa nagusitzen da, gero eskia-tzerakotan eta kalean jendea talde txikiagoetan ibiltzen den arren.

■ **Eskiak:** Fondoko eskian aritzeko botak eta eskiak alokatzen dira. Autobusa Belaguako aterpetxetik gora doan bidetik doa, pistetaraino.

■ **Elurretan:** Crema eman, burua eta belarriak estali, botak jantzi eta taldetan banatzen da jendea eskiatzen haste-

## elurretan



ko. Monitore baten agindupean aritzen dira batzuk, beste batzuek, berriz, hain printzipianteak ez direnak itxuraz, "por libre" doaz.

■ **Ikastaroa:** Ipurdiko ederrak hartuta, "kuñak", "pausu alternoa eta simultaneo" eta irakasleak esandako beste hainbat gauza ganoraz egiten saiatuz ematen da goiza eta eguerdia. Laupabost ordu eta gero, haizeak aurpegia kiskalita, arropak aldatu eta bokadiloa jatera.

■ **Arratsaldean:** Belaguako aterpetxean gertatzen dira batzuk gaua igarotzera, gehienak berriz, Isabako "Oxanea"ra doaz. Dutxa beroa hartuta, poteoaren txanda dator. Ez da San Frantzisko kalearen falta igartzen. Taberna ugari dago Isaban eta "Kartutxo"rik ere badago.

■ **9ak aldera:** Bapo

afaldu ondoren egunean egindakoa igartzen du gorputzak. Nekaezinak kalera irteten dira eta parranderoenak goizalderarte ez dira etxeratzen.

■ **Igandea:** Bapo gosalduta behar da gogoz eskiatu ahal izateko. Eguraldia ez da nahi bezain ona. Haizetik babesteko sakongune batean ematen dira klaseak.

■ **Itzulera:** Zerbait ikasi izanaren sentsazioaz autobusera, etxertzeko ordua da eta. Joan aurretik, Belaguako aterpetxearen aurrean argazkia ateratzeko unea. BARREnekoak han ibilita, ezin ihesik egin.

■ **Gaueko 9ak:** Sig-mako zubian bakoitzak bere motxila hartzen du etxera bidean. Hemendik aurrera, bizi izandako gutzia oroitzen bihurtzen da hurrengora arte.





## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.  
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.  
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Olaso poligonoan. 14m<sup>2</sup> eta 3,5 metrotako altura. 1.300.000 pta.  
☎ 74 13 67 Josetxo  
Gauzez deitu

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.  
☎ 74 02 61

GARAJE BAT daukat alokatzeko San Rokeko pista beltzean. Marraduna.  
☎ 74 21 64

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.  
☎ 74 02 81  
9etatik aurrera

## Salerosketak

2 urtetako SIBERIAN HASKY BAT saltzen dut. Papelak dauzka eta pedigreea ere bai.  
☎ 74 38 41

Karnabaletarako HAUREN JANTZI BATZUK saltzen ditut: txanogorritxu, dama antigua eta arabe.  
☎ 74 14 69

BMX KLASSEKO BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatu.  
☎ 74 34 05

KARABANA BAT saltzen dut. 5 plazatak da eta egoera oso onean dago.  
☎ 74 37 84

Bilbo-Frankfurt-Coloniarako HEGALDIA SALTZEN DUT. Otsailaren 17rako da baina eguna alda daiteke. 20.000 pta.  
☎ 74 42 26

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria. Gauzez deitu.  
☎ 74 26 26 / 74 20 31

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.  
☎ 74 17 60

AEG markako erropa lehortzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.  
☎ 74 34 06

## Bestelakoak

GITARRAKO KLASSEAK hartuko nituzke, norbait klaseak emateko prest balego.  
☎ 74 09 02

Hilaren 12an, Igandea, KIROL KAMISETA GORRI BAT galdu nuen Urasandi inguruan.  
☎ 74 27 22 Edu

Anbulategian KARTERA lapurtu zidaten. Diruagatik ez du inporta, dokumentazioa errekueratu nahi dut. Entregatu Udaltzaingoa.  
☎ 74 42 49 / 74 22 14

Larunbatean BETAURREKO BOROBIL BATZUK galdu nituen San Frantzisko kalean, King-Kongetik beherantz.  
☎ 75 60 77 Soraia/Begoña

EGUZKITAKO BETAURREKO BATZUK galdu ditut. UZURIneko funda granatea dute.  
☎ 74 37 84

CARITASEK sukaldarako eta salarako ARMARIO BAT behar du.  
☎ 74 15 09  
☎ 74 12 57

## Lana

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.  
☎ 74 39 89 Mari Karmen

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.  
☎ 74 43 16 Mari Karmen  
Goizez

Era guztietako faszikuluen ENKUADERNAKETAK eta KONPONKETAK egiten ditugu.  
☎ 74 04 39 Edurne

Bilboko sendi batek AUPAIR BAT hartuko luke Northamptonen (Inglatera). Etxean erdaraz hitzegiten da baina goizeko 9etatik arratsaldeko 3,30ak arte libre egongo litzateke.  
☎ 74 15 73

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.  
☎ 74 41 77 Idoia  
☎ 74 22 77 Iratxe

3 urteko neskatxo bat zaintzen dut. HONEKIN JOLASTUKO LUKEEN BESTE BAT zainduko nuke.  
☎ 74 12 26  
4etatik 8etara


## Etxebizitzak

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.  
☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.  
☎ 74 32 98

LOGELA BAT alokatuko nuke, sukaldea erabiltzeko aukerarekin.  
☎ 74 41 32 Susana

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala.756264  
Drogomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua.....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikirolegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Institutua .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 22 67  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57  
Zazpiki .....74 34 74

## OSTIRALA

### 18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8

### 22,15 ZINEA

"La máscara"

## LARUNBATA

### 12,00 ELKARRIREN MAHAI INFORMATIBOAK

✓ Plaza Handian

### 19,30-22,15 ZINEA

"La máscara"

## IGANDEA

### 10,00 DULTZAINEROEN KALEJIRA

### 12,30 MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

### 16,30-19,30-22,15 ZINEA

"La máscara"

## ASTELEHENA

### 22,15 ZINEA

"La máscara"

## ASTEARTEA

### 20,00 KORRIKA 94ko BATZORDEAK SORTZEKO BILERA

✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: AEK

### 22,15 ZINEA

"Todo es mentira"

## OSTIRALA

### 19,00 ESPELEOLOGIA ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: Leizarpe  
Espeleologia Taldea.  
Martxoaren 19ra arte

### 20,00 HITZALDIA

Gaia: "Independentziaren estrategiak ba al du irtenbiderik?"


Hizlaria: Xabier Alegria, KASeko bozeramalea

✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: Elgoibarko KAS

### 22,15 ZINEA

"El Rey León"

## ZINEA



### La máscara

Zuzendaria: Chuck Russell.  
Antzezleak: Jim Carrey,  
Cameron Diaz, Peter Riegert.  
Iraupena: 101 m.

Stanley Ipkiss-ek (Jim Carrey), pelikulako protagonistak, banketxe batean egiten du lan. Bere bizitza erabat grisa da, lankideen txantxak jasan behar izateaz gain, ez dauka neskenagana urreratzeko behar duen ausardia. Egun batean maskara azteka bat topatuko du. Aurpegia harekin estaltzen duen bakoitzean nortasuna arras aldatuko zaio: aurpegi berdea, irrifarre zuri-zuria eta lotsagabe galanta. Maskaraz baliatuz, Edge City-ko ganster arriskutsuenari neska-laguna osten saiatuko da.

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
18, larunbata:	Yudego	Anduaga
19, igandea:	Yudego	Anduaga
20, astelehena:	Bidasolo	Escala
21, asteartea:	Bidasolo	Escala
22, asteazkena:	Bidasolo	Escala
23, osteguna:	Bidasolo	Escala
24, ostirala:	Bidasolo	Escala

### FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro  
Tel. 75 61 42/75 60 27

Escala: Rekalde 1, Plaentxi  
Te. 75 16 38

### OKINDEGIA:

19, igandea: ZABALETA

## ZINEA



### Todo es mentira

Zuzendaria: Alvaro Fernandez Armero.

Antzezleak: Penelope Cruz,  
Coque Malla, Jordi Mollá.

Maiteminduta dauden lau bikoteri buruzko istorio mikatsa da. Bapatean maiatasuna gezur haundi bat denaz ohartzen dira lauak. Gogorra izan arren, nahiago dute egoera horretan bizitzen jarraitu, bakardadean murgildu baino. Psiko-thriller-sentimental bat dela esan daitekeen arren, komedia modura dago kontatua.

# Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak

## KULTUR IHARDUERA TALDERAKO *jendea behar du*

Elkarteak hiru urterako KULTUR ESKAINTZA prestatu du eta berau gauzatzeko, egun daudenei lagunduko dion jende berria behar dugu.

*Lana talde hauetariko batean egin daiteke:*

### ..... KULTUR ESKAINTZA .....

#### I. AZPITALDEA

- ◆ Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak.
- ◆ Ikastaroak: urtean 2.
- ◆ Erakusketak: urtean 1.
- ◆ ...

#### II. AZPITALDEA

- ◆ Bertso Eskola.
- ◆ Santa Ageda eguna.
- ◆ "Gabonak Bertsotan".
- ◆ ...

#### III. AZPITALDEA

- ◆ Mahainguruak: urtean 3.
- ◆ Hitzaldiak: urtean 2/3.
- ◆ ...

#### IV. AZPITALDEA

- ◆ "Ez dok amaitu!".
- ◆ Ikuskariak: dantza, musika, antzerkia.
- ◆ "Ihauteri Dantza".
- ◆ ...

#### V. AZPITALDEA

- ◆ Ohitura zaharren berreskurapena.
- ◆ Bekak.
- ◆ Bestelako ideiak.




○ Hauetako talderen bat gustukoa baduzu eta astean ordu t'erdi Elkarteari eskaintzeko prest bazaude, azaldu otsailaren 23an (osteguna), arratsaldeko 7etan, Kultur Etxeko hitzaldi aretoan egingo dugun batzarrera edota deitu 74 16 26 telefonora (Imanol) laguntzeko pronto zaudela esanaz.

○ Baldintza bakarrak euskalduna izan eta ondo pasatzeko gogoia edukitzea diral



ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkarteak



# Hyundai Berria

# ACCENTATU ZAITEZ

Hiru, lau eta bost ateko bertsioak.

**1.335.000 ptatik\***.

Gainera Hyundaik 3 urteko garantia

eta 24 orduko asistentzia eskaintzen dizkizu.

Accentatu zaitez.

Zatoz zure kontsesionariora.



BERTSIOEN ARABERAKO EKIPAMENDUAK: **Airbag**, **alboetako babes egitura**, aire egokituua, direkzio lagundua, atzeranzko ispilu elektrikoa, mailetegia eta depositoa barrutik zabaltzeko aukera, antena elektrikoa, eserleku eta gerriko erregulagarriak, ixte zentralizatua, leiho igogailu elektrikoak, atzeko burupausagailuak, irratikaset estereoa.

1300 eta 1500 cc bitarteko MOTORIZAZIOAK, 82 eta 90 z.ko potentziarekin.

Injekzio puntuazidun 12 balbulatuko motorrak.

## BANATZAILE OFIZIALAK:

**ELGOIBAR:** MENDARO AUTOAK, S.A. Olaso Kalea, 25. 20870 **ELGOIBAR**. Tel 74 32 00.

**MENDARO:** MENDARO AUTOAK, S.A. Errep. Nazionala 634, Km. 52. 20850 **MENDARO**. Tel 75 50 72.

**DONOSTIA:** MENDARO AUTOAK, S.A. Zurriola Etorbidea, 16 - Behea. 20002 **DONOSTIA**. Tel. 28 33 33.

\* Penintsula eta Balearretarako proposatutako prezioak, BEZa, garraioa eta matrikulazio zergak barne.

100.000 km artekoa.  
(Piezak eta eskulana)

